

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ GABONAK

Jolas Txiki eta Aretoa, oporrak gozatzeko

Oporrak jolasean gozatzeko hainbat aukera izaten dira urtero, eta aurten ere, halaxe izango da. Gaurtik hasita, Jolas Txiki izango da kiroldegian, 2-5 urtekoentzat, goizeko 09:00etatik eguerdiko 13:00etara; eta kultur etxean, aldiz, Jolas Aretoa jarriko dute, 9-12 urte bitartekoentzat. Aurrenekoan izena eman behar zen; bigarrena, aldiz, irekia da. Gaurtik hasi eta etzira arte egongo da irekita 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:30etara. Baita hilaren 31n, eta urtarrilaren 3an ere. ■

■ KRONIKA

Kronika egunero, urte berriarekin batera

Asteazken eta larunbatetan jasotzen zuten Kronika astigartarrek orain arte, baina 2019arekin, egunero irakurri ahal izango dituzte bertako albisteak, gainontzeko herrietakoekin batera.

AURRERAPAUSSOA egingo du Kronikak Astigarragan, hurrengo astetik aurrera. 2019 urte berriarekin batera, aleak bateratu eta egunero jasoko dute astigartarrek Kronika, ohiko banaketa-puntuetan, ez asteazken eta larunbatetan,

bakarrik, orain arte gertatu den bezala.

Urtarrilaren 2tik aurrera, bertako albisteak, Urumea bailarako gainontzeko herrietako berriekin batera irakurri ahal izango dira bailara osoan, egunero: Hernanin,

Astigarragan, Ereñotzun, Aranon eta Goizuetan.

Baita interneten ere, ohiko helbidean: www.kronika.eus.

2014 urtetik, Astigarragan

Duela ia bost urte, 2014ko otsailaren 26an iritsi zen

Kronikaren aurreneko alea Astigarragara, bertako alearekin, eta martxoaren leian jaso zuten astigartarrek aurreneko Urumeako Kronika. Urte berriarekin, 2014an emandako pauso hori berretsi nahi du Kronikak. ■

■ MUNDARRO

Ate irekiak, bihar eta etzi

Mundarro kirol elkarteak jakinarazi du ate irekiak egingo dituela bihar eta etzi. Bihar eskubaloi taldearekin, 10:00etatik 12:00etara, LH3tik 6ra arteko neska-mutilentzat. Etzi, futbola probatu ahal izango dute 2007-2011n jaiotakoek, 16:30etatik 18:30etara. ■

■ PRESOEN LAGUNAK

'Azken ostirala!', etzi

Urteko *Azken ostirala!* dela-eta, kontzentrazioa deitu dute Astigarragako Presoen Lagunek etzirako. Joseba Barandiaran plazan izango da, iluntzeko 20:00etan. Igandean Martutenera martxa egingo dute. ■

■ INUXENTE KROSA



Ezkerrean, hiru emakume eta hiru gizonek osatutako podiuma; eta eskubian, Fran Riverori saria eman ziotenekoa.

Santos eta Esnaola garaile, Inuxente Krosean

Mundaroren sari berezia jaso zuen Fran Rivero astigartarrak, «beterano izan arren, gazteenaren sasoia» izateagatik. Giro ederrean parte hartu zuten, denera, 38 korrikalarik.

IAZ errekuperatu zuten Astigarragako Inuxente Krosa, eta aurten ere egin dute. Igandean izan zen, eta Julen Santos eta Eva Esnaola izan ziren Inuxente azkarrenak.

38 partehartzaile

Denera, 38 korrikalarik hartu zuten parte helduen txapelketan. Julen Santos izan zen gi-

Lasterketa nagusiaren aurretik 40 gaztetxok hartu zuten parte, haurren lasterketan.

zonezkoetan azkarrena, baina hurrengo biek ere, jaso zuten saria. Unai Iraola izan zen bigarren, eta Sergio Garzo, hiru-

garren.

Gauza bera, emakumezkoen kasuan. Eva Esnaolak izan zen txapeliduna, eta June Montero eta Estitxu Ezkurra iritsi ziren, jarraian.

Horrez gain, sari berezia ere banatu zuen Mundarro Kirol Elkarteak. Fran Rivero astigartarrak jaso zuen, «beterano izan arren, gazteena-

ren sasoia» izateagatik. Duela urte asko dabil Rivero lasterketa herrikoietan, eta gainera, berak antolatzen du Santio festetako krosa.

40 gaztetxo, aurretik

Lasterketa nagusiaren aurretik, gaztetxoenen txanda izan zen. Sasoiu egin zuten korri etorkizuneko 40 korrikalarik! ■

■ ASTIKO

Ohe elastikoak, bihartik erabilgarri

Ohe elastikoak jarriko ditu gaur Astiko Astigarragako Merkataria, Ostalari eta Zerbitzuen Elkar-teak, *Egin salto!* kanpainaren barruan. Gaur jarriko dituzte Joseba Barandiaran plazan, baina bihar egongo dira erabilgarri, Astikoren komertzioetan erosi edo kontsumitzen duenarentzat. Igandera arte egongo dira bertan, goizez, 11:00etatik 13:30etara; eta arratsaldez, 17:00etatik 20:00etara. ■

Latxe

Bosgarren alea kalean!

latxe@kronika.eus
943 33 08 99

Urumeako ur-ttikitan barrena

ISABEL

Janari denda

COVIRAN

Tomas Alba 11,
Astigarraga
943 55 23 67

OGI BERRI OKINDEGIA

Rosa Morla

Kale Nagusia, 31
20115 ASTIGARRAGA
Tfn: 943 55 41 04 - 618 269 314
rmorlalungo@yahoo.es

sulabe

Valella okindegia

Nagusia 27
Astigarraga
943 33 24 10

☎ **TAXIAK:** 622 222 343 | **UDALTAINGOA:** 943 335230 - 699 487 587 | **DYA:** 943 46 46 22 (Hemani) | **AUTOBUSAK:** **Areizaga:** 943 452708 | **ANBULATORIOA:** 943 33 56 44
✚ / **Egunez:** **ASTEAZKENA Castilla** Urbietta, 7 (Hemani) **943 552941** | **OSTEGUNA A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hemani) **943 551793** | **OSTIRALA Castilla** Urbietta, 7 (Hemani) **943 552941** | **LARUNBATA Odriozola URNIETA** Idiazabal, 18 **943 334014**
| **IGANDEA Odriozola URNIETA** Idiazabal, 18 **943 334014** | **ASTELEHENA Etxebeste** Elkano, 9 (Hemani) **943 552087** | **ASTEARTEA A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hemani) **943 551793** / **Gauz:** **Castilla** Urbietta, 7 (Hemani) **943 552941**

EGURALDIA

GAUR

Giro argia izango dugu gaur ere, erdi eta goi mailako laino batzuekin. Hegoaldeko haizea ibiliko da, eta tenperatura atsegina izango dugu eguerdian.
Min.7° / Max.15°

BIHAR

Berdintsu egongo da bihar. Tarteka lainoak izango dira zeruan, baina ostarte zabalak ere irekiko dira. Hego-mendebaldeko haizea ibiliko da, tarteka bizi.
Min.7° / Max.16°

(euskalmet)

■ GABONAK



Santiomenditik jaitsi eta herrian zehar ibili ziren Olentzero eta Mari Domingi gazte eta helduen abestiek alaituta.

Santiomenditik behera musikaz alaituta, opariak banatu aurretik

Gaztetxoeren erritmora jaitsi ziren Olentzero eta Mari Domingi herrira eguerdian, aurten txintxoak izan direnei opariak banatu zizkieten, gero.

LAN asko izan zuten herenegun, gabon gauean, Olentzero eta Mari Domingi, Euskal Herriko etxeetan opariak eta ikatza uzten.

Baina aurretik, geldialdi-txoa egin, eta Astigarragara iritsi ziren, Santiomenditik jaitsi eta herriko gaztetxoek agurtzeko, Xaguxar aisialdi taldeak

Xaguxar aisialdi taldearen eskutik egin zieten bisita astigartarrei.

gonbidatuta.

Haiekin Gabonetako kantak abestu eta herrian zehar kale-bueltan dantzaz ibili ziren.

Eta bukatzeko, udaletxeko balkoira igo, eta bertan aritu ziren denak elkarrekin abesten. Astigarragako gaztetxoek beren azken eskaerak egiteko aukera paregabea izan zuten baita ere.

Orain, haiek ekarritakoarekin gozatzeko unea da; datorren urtera arte! **||**

■ FUTBOLA

Garaiezina oraindik ere, Mundarro

4-0 irabazi zuten Mundarroko mutilek Berako Gure Txokoaren aurka.

LORTU dute. Zazpigarren garaipenaren bila zelaieratu ziren igandean Mundarroko erregional mailako mutilak, eta egin zuten; beste hiru puntu poltsikoratu dituzte moreek, Berako Gure Txokoaren aurka 4-0 egin ondoren.

Erraz irabazteko moduko partidua zela bazekiten, eta jardunaldiz jardunaldi ikasten eta hobetzen joan direna atera, eta lau gol sartzea lortu zuten. Garaiezinak direla frogatu zuten, beste behin.

Emaitz honi esker, bigarren jarraitzen du Mundarroko Andoingo Euskalduna taldetik lau puntura. Astigarrarek 36 puntu dauzkate; andoindarrekin, aldiz, 40. **||**



Ederki aritu ziren Astigarragako mutilak igandean.

■ EH BILDU

Herritarrak gonbidatuta, «EH Bilduren ekimenez»

Sagardo Berriaren Egunerako sarrerak zozketatuko ditu Sagardoaren Lurraldeak.

AURREKO astean eman zen jakitera Gartziategi sagardotegian izango dela 2019ko Sagardo Berriaren Eguneko, hau da, txotx denboraldi berriaren irekierako bazkaria.

Bertaratzeko aukera luzatu diete, aurrenekoz, herritarrei. «EH Bilduren ekimenez» izan dela adierazi du koalizio abertzalearen Astigarragako taldeak: «2018koa, Sagardo Berriaren Egunaren 25. urteurrena zela aprobetxatuz, EH Bilduk herritarren artean bazkarira joateko sarrerak zozketatzeko proposatu zuen».

Proposamen hori, «Sagarduneko (Sagardo Berriaren Eguna antolatzen duen partzuergoak) kideek, sagardogile zein eragileek, begi onez ikusi zuten». Diotenez, «2018an ez zen posible izan, baina 2019an 10 astigartarrek (5 sarrera bikoitzi esker) Sagardo Berriaren Eguneko bazkarian parte-hartzeko aukera izango dute».

Proposamena luzatu zuen EH Bilduk «herritar askok» eskatu izan dutelako «Sagardo

EH Bilduk egindako proposamena, «Sagarduneko kideek, sagardogile zein eragileek, begi onez ikusi zuten»

Berriaren Eguneko bazkarian parte-hartzeko aukera». Eta are herritarragoa izaten saiatuko dira: «Jai honetan herritarren parte-hartzea areagotzeko lanean jarraituko du aurrerantzean ere». Eta horretarako, «EH Bilduk proposamenak eraikitzaileak egiteari ez dio uko egingo».

Aukera, urtarrilaren 6ra arte Hain zuzen, Sagardo Berriaren Egunean egon nahi dutenek, urtarrilaren 6ra arte izango dute aukera, parte hartzeko. Horretarako, Sagardoetxera jo beharko dute: bertaratzuz (kultur etxearen ondoan dago); telefonoz, 943 550 575; edo emailaz, info@sagardoarenlurralde.eus. **||**

■ KIROL TABLA ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA		
Mut. Erregional Preferent	Mundarro-Gure Txokoa	4-0
Mut. Erregionalak 1go maila	Mundarro-Ostadar	1-1
Mut. Jubenilak Ohor. mail	Allerru-Mundarro	0-5
Mut. Kadeteak Ohor. mail	Mundarro-Danena	1-3
Neska kadeteak	Intxaurdi-Mundarro	4-0
Mut. Infantilak 1go maila	Vasconia-Mundarro	2-3
Mut. Infantilak 1go maila	Mundarro-Sanse	1-0
Infantil Txikiak	Antiguoko-Mundarro	5-1
ESKU PELOTA Gipuzkoako Trinketeko Txapelketa		
Eskuz Banaka Nagusiak	Gurutzealde-Labaka (Hemani)	40-27
Eskuz Banaka Kadeteak	Naldaiz (Lapke)-Ekain Lizeaga	18-13
Eskuz Banaka Kadeteak	Eñaut Lizeaga-Uitzi (Hemani)	30-8
Eskuz Banaka Kadeteak	Ekain Lizeaga-Apaolaza	30-18